

**ERABAKIA, 2020ko URRIAREN 14koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO  
ERREKTOREORDEARENA, IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKI  
LANKIDETZAZ PRESTATZEKO LAGUNTZEN EMAKIDA (2020) BEHIN BETIKO EBAZTEN  
DUENA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2020ko apirilaren 8an, Ikertzaileak Erakunde eta Enpresekiko Lankidetzaz Prestatzeko Laguntza deialdia 2020 .

2020ko uztailaren 20an, ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen eskaera osatugabeak edo akastunak osatzeko edo zuzentzeko.

Zuzentzeko epea amaituta, 2020ko irailaren 17an argitaratu zen ebaluatzeko onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda, eta ezarritako gutxieneko baldintzak bete eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu duten 9 eskaera onartu ziren.

Deialdiaren 5.1 oinarriak ezartzen duenez, 8 dira aurreikusitako laguntzen kopurua, eta alda egin daiteke laguntzak emateko erabakian aurrekontu baliabideen arabera.

Onartutako 9 eskaerei laguntza emateko aurrekontu baliabideak daudenez gero, ez dago horien ebaluazioa egin beharrik emakidaren lehentasun ordena ezartzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau

### **ERABAKI DUT**

**Lehenengoa.**- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena.

**Bigarrena.**- 30 eguneko epea irekitzea, 2020ko urriaren 14tik azaroaren 24ra, hautatutako pertsonen Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten deialdiko 11. oinarrian eskatutako agiriak, betiere II. eranskinean jasotako jarraibideen arabera. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da laguntzari uko egiten zaiola.

**Hirugarrena.**- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

**Laugarrena.**- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilita:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2020ko urriaren 14an.

José Luis Martín González  
Ikerketaren arloko errektoreordea  
Vicerrector de Investigación

**I. ERANSKINA**

**EMANDAKO ETA UKATUTAKO LAGUNTZEN BEHIN BETIKO ZERRENDA**

NAN	Kodea	BEHIN BETIKO ERABAKIA
16087532K	PIFI20/07	UKATUTA
22762631Z	PIFI20/11	UKATUTA
33560399H	PIFI20/05	EMANDA
45194180P	PIFI20/12	EMANDA
45823596Y	PIFI20/09	UKATUTA
517930165	PIFI20/14	UKATUTA
70913382N	PIFI20/02	EMANDA
72316853T	PIFI20/13	EMANDA
78955301G	PIFI20/06	EMANDA
78957737W	PIFI20/04	EMANDA
78994186L	PIFI20/01	EMANDA
79067451Y	PIFI20/10	EMANDA
79124563D	PIFI20/03	UKATUTA
EG1762191	PIFI20/08	EMANDA

## **II. ERANSKINA**

### **UPV/EHU<sup>n</sup> AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Helbide elektronikoa honetara bidali behar dira dokumentazioa aurkeztearekin lotutako kontsultak: [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus).

Hautatutakoek dokumentu hauek aurkeztu behar ditzute Ikerketaren arloko Errektoreordetzan, gehienez ere 30 eguneko epean (2020ko urriaren 14tik azaroaren 24ra):

- a. Eskaeran aipatutako doktorego programako matrikularen gordekina.
- b. Deialdi honen hautatutako pertsona gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendarikideek ontzat emana.
- c. Deialdian hautatutako pertsonaren eta entitatearen artean sinatutako kontratuaren kopia.
- d. Erakundeko ordezkari legalak sinatutako [hitzarmenaren](#) bi ale . Webgunean dagoen ereduan ezin da egin aldaketarik.
- e. Kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

Esteka honetan kontsultatu daitezke UPV/EHUren erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: [https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra\\_ordutegia](https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra_ordutegia), UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen erregistro elektronikoaren bidez). Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetza aukeratuko da hartzaile gisa, eta eskatutako dokumentazio gehigarria erantsiko da (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), edo, hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduetako batean. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da dirulaguntzari uko giten zaiola.